

91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

24. ORDENANTZA: ORDENANTZA FISKALA, BARAÑAINGO UDALEKO BERDINTASUNAREN ALORRAK ANTOLATZEN DITUEN PRESTAKUNTZA IKASTAROETAKO SARRERA, IZEN EMATE EDO MATRIKULA ARAUTZEN DUENA

Oinarria.

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. idatz-zatiko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

Kontzeptua.

2. artikulua. Prezio publikoak galdatuko dira, Udaleko Berdintasunaren Alorrek urtean antolatzen dituen prestakuntza ikastaroetan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo gisako berte edozein kontzeptua dela eta, prezio publikoak aplikatzeko berte ordenantzetan sartuta ez daudenean.

Kudeaketa eta diru-bilketa arauak.

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko inskripzioa eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

Tarifak.

6. artikulua.

6.1. Arau honetan azaltzen diren tarifak aplikatuko dira, edo kasu bakoitzean ezartzen direnak, betiere garatu behar den jarduerari egokituak, eta, hala bada, Balio Erantsiaren gaineko zergaren kuota ere eramanen du.

2018KO TARIFEN ERANSKINA - 28. NAON ARGITARATUA 2018KO OTSAILAREN 8A

	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
- 20 orduko ikastaroak (euro/ikastaroa).	41,25 euro	62,00 euro
- 40 orduko ikastaroak (euro/ikastaroa).	82,30 euro	123,50 euro
<p>Ahaleginak eginen dira beti ikastaroen iraupena 20tik 40ra ordura bitartekoa izateko. Hala ez bada, batez bestekoa eginen da orduen eta zenbatekoen artean.</p> <p>Erroldatu gabeak ikastaro eta tailerretan plaza librerik gelditzen bada baizik ez dira onartuko. Haienezako, ikastaro bakoitzaren prezioa erroldatuena halako bi izanen da, aurreko taularen arabera.</p> <p>Ikastaroaren matrikula ez ordaintzeko eta/edo kuota sinbolikoa besterik ez ordaintzeko aukerak aztertuko dira, gizarte-bazterketako egoeran dauden Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileen kasuan, haienezako interes berezikotzat hartzen bada ikastaroa, betiere Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak proposaturik.</p> <p>Ikastaroak hasitakoan ez da itzuliko ordaindutako zenbatekoa.</p> <p>Izena emateko epea bukatua, eskainitako ikastaroren batean plaza librerik gelditzen bada, matrikula berriak ematen ahalko dira, betiere ikastaro guztia ordaintzen badute.</p> <p>Antolatzaileek ikastaro edo tailerren bat bertan behera utziz gero, kuotaren zenbatekoa itzuliko zaie izena eman duten erabiltzaileei.</p>		
Bestelako jarduerak:		
Sentsibilizaziorako eta/edo prebentziorako jarduerak soziokulturalak (antzerkia, kontzertuak), herritar guztientzakoak:	Kuota sinbolikoa: 3,00-6,00 euro	